

EMAKUMEAK, TEKNOLOGIAREN SORTZAILEAK

ADALOVELACE200

ERAKUSKETAK LIBURUTEGIAN
ABENDUAren 10etik 2016ko URTARRILaren 31a arte

Konputagailu mekanikoen ametsa

Egoitz Etxebeste Aduriz | Zientzia.eus, 2010-03-01
<http://zientzia.eus/artikuluak/konputagailu-mekanikoen-ametsa/>

Cambridgeko Analytical Society-ko gela batean eserita zegoen, burua mahairantz makurtuta, pentsakor; eta mahaian, logaritmo-taulak zabalik. Kide bat gelan sartu eta jarrera hartan ikusi zuenean, "Babbage, zerekin ari zara ametsetan?" galdezu zion. "Pentsatzen ari nintzen taula hauek guztia makina batek kalkulatzea posible balitz... Jainkoari eskatzen diot kalkulu hauek lurrunaren indarraz egin daitezela!".

Charles Babbage gaztea kezkatuta zegoen taula haietako errore-kopuruarekin. Garai hartan, XIX. mendearren hasieran, zenbakizko taulaz beterik liburuak argitaratzentziren, eta ezinbestekoak ziren nabigatzaleentzat, bankariantza, ingeniarientzat eta zientzialarentzat oro har. Babbagek berak, matematikaria izanik, bazuen esperientzia halako taulak egiten, eta bazekeien zein lan neketsua eta zaila zen. Eta konturatutu zegoen taula haiiek egitea pertsonen esku zegoen bitartean, erroreak saihestezinak izango zirela.

Horregatik hasi zen kalkulu haiiek egingo zituzten lurrun-makinakin ametsetan. Izan ere, Babbagen burua ez zegoen geldirik egoteko egina. Besteak beste, trenetarako hainbat gailu asmatu zituen, oftalmoskopioa ere bai, kriptografian aritu zen, zuhaitz fosilen eraztunak iraganeko klima ezagutzeko balio zutelatik zuten, gaur egun erabilten dugun postako franko-sistema proposatu zuen, eta abar. Behin, 100 °C-tik gorako labe batean sartu zen minutu batzuez, eta ondorioztatu zuen Vesuvioko kratterra jaisteko gai izango zela. Urte batzuk geroago jaitsi zen.

Baina pasiorik handiena, Analytical Societyko gela hartan amestutako bidetik etorri zitzaiion. Hamar bat urte geroago, 1822an, aurkeztu zuen Royal Society-n "makina diferentziala"-ren diseinua. Diferentzia finituaren metodoa erabiliz funtzió polinomikoak kalkulatzeko eta emaitzak inprimatzeko gai izango zen makina hura. Hainbat ardatzetaen sartutako metalezko gurpil horzdunez beteta zegoen makina bat zen; 25.000 pieza inguru zituen diseinuak, eta 15 tona inguru pisatuko zituen.

Harrera oso ona izan zuen ideiak, eta gobernuak ere konbentzitu zuen Babbagek proiektu hura finantzatzeko. Baino hamar urteren buruan ez zuten lortu makina eraikitzea; eta, 1833an, gobernuak proiektua bertan behera uztea erabaki zuen.

Babbagek ez zuen etsi. Areago, ordurako ideia hobea bati bueltaka zebilen. Izan ere, konturatu zen funtzió polinomikoak kalkulatzentzituen makina batek gai izan behar zuela beste edozein kalkulu egiteko ere. Birdiseinatu egin behar zuen makina hura, haren mekanismoak zenbait modutan erabiltzeko aukera egon zedin. Eta horretarako, era bat aurkitu behar zuen makinari esateko egin zitzakeen ekintza guztietatik zein aukeratu behar zuen; alegría, makina programagarri bat egin behar zuen. Lehenengo ordenagailua sortzen ari zen Babbagen buruan.

"Makina analitiko" deitu zion. 1834rako eginak zituen lehen zirriborroak. Sarrera-mekanismo bat zuen, non zenbakiek edo jarrai bideak saritzeko; eta kalkuluak egiteko "prozesagailu" bat; hirugarrenik, kontrol-unitate bat, kalkuluak orden egokian egingo zituela bermatzeko; laugarrenik, biltegi edo memoria bat zegoen, non zifrat beren txandaren zain geldituko ziren; eta, azkenik, irteera-mekanismo bat, emaitza inprimatuta emango zuena.

Biltegian 50 desimaleko 1.000 zenbaki gordetzeko diseinatu zuen makina. Eta aginduak edo jarrai bideak emateko Joseph Jacquard-ek 1801ean ehungailuetarako asmatutako kartoizko txartel zulatuen ideia hartu zuen.

Garai hartan ezagutu zuen Babbagek Ada Lovelace gaztea. Eta haren talentuarekin liluraturako gelditzailea zen. Hemezortzi urteko neska hark Babbagen makinekiko agertu zuen interesak, eta Babbagen ideiak benetan ulertzeko gai izan zen pertsona gutxietako bat izateak ere izango zuen eragina liluratzeko horretan.

Lord Byron poetaren alaba zen Ada Augusta Byron (Lovelaceko kondesa izan zelako gelditzaio Ada Lovelace izena). Adak lau hilabetetako poetarengandik banandu ostean, Anne Isabella Milbankek ahaleginak egin zituen alaba aitaren bidetik ahalik eta gehien urruntzeko; eta horregatik jarri zuen txikitandik matematika ikasten.

Babbage ezagutu zuenerako, matematikari trebea zen. Babbagek dizipulu hartu zuen, eta lankide ezin hobea izan zuen Lovelace. Ashotan laguntzaile soil gisa tratatzentzat bazuen ere, miresten zituen haren dohainak; "zenbakizorgintzaile" ezizena jarri zion.



Elkarrekin jarraitu zuten makinarekin lanean. Eta Lovelacek idatzi zuen makina analitikoarentzako lehen "programa", inoiz makina eraiki izan balitz Bernoulli-ren zenbakiaz kalkulatzeko balioko zukeena. Horregatik, lehen programatzaitzat hartzen da Lovelace.

Lovelacek garbi ikusten zuen makina haren ahalmena: "nola egin esateko gai garen edozer egin dezake makina honek" zioen. Baino aurreko makinaren porrota eta gero, Bagaggek ez zuen makina miragarri hura eraikitzeko esperanza handirik. 1835ean miresle amerikar bat idatzi zion: "Gai izango zara hautemateko zernolako eragina izango luukeen halako makina batek zientziaren aurrerapenean. Hori estimatzeko gai ez den herrialde batean bizi naiz ni".

Gobernuaren konfidantza ere galdua zuen, eta bere ondasunak aurreko makinarekin gastatua. Dirua lortzeko, Lovelace eta Babbage zaldikarreretako apustuak irabazteko metodo bat garatu nahian ere ibili ziren; baina horretan ere ez zuten arrakastarik izan.

Lovelace 37 urterekin hil zen, minbiziak jota. Babbagek bere makinaren diseinua fintzen jarraitu zuen bizitza osoan. Baino, bere ideietan sinesten ez zuen gizartegandik eta gobernuagandik urrunten joan zen. Pixkanaka, agure egoskor marmarti odolberot bat bihurtu zen. Eta, azkenerako, bere lanagatik baino famatuago egin zen, kale-musikarien aurka egin zuen hanpainagatik. Zerrenda batean bildu zituen "Gobernuak Londongo kaleetan egunero eta gauero erabiltzea onartzentzituen tortura-instrumentuak". Hor sartu zituen "organoa, biolina, gaita, akordeoia, tronpetta, danborra...".

P.S.: Londongo Zientzia Museoak Babbagen makina diferentzialaren azken bertsioa eraikitzea erabaki zuen, jatorrizko planoek jarraituz. 1991ean aurkeztu zuten, Babbagen jaiotzaren 200. urteurrenean, eta museoan ikusgai dago geroztik. Primeran funtzionatzen du.



:: LIBURUAK / LIBROS / BOOKS

(H)adas : mujeres que crean, programan, "prosumen", teclean / Remedios Zafra
Sbc Investigación 396:681.3 HAD
http://millennium.ehu.es/record=b1823027-S1*spi

ADA : a developmental approach / Fintan Culwin.
Sbc Investigación 681.3.06 ADA
http://millennium.ehu.es/record=b1032054-S1*spi

Ada : a life and a legacy / Dorothy Stein
Sbc Investigación 51LOVELACE
http://millennium.ehu.es/record=b1170925-S1*spi

Ceros + unos : mujeres digitales + la nueva tecnocultura / Sadie Plant
Sbc Investigación 007:396 PLA
http://millennium.ehu.es/record=b1270346-S1*spi

Consolidated ADA reference manual : language and standard libraries, International Standard ISO-IEC 8652-1995 (E) with technical corrigendum 1 / S. Tucker Taft...[et al.]
Sbc Investigación 381.3.06ADA CON
http://millennium.ehu.es/record=b1377562-S1*spi

El mundo necesita ingenieras : ¿quieres ser una? / María Villarroya Gaudó, Sandra Baldassarri, Pilar Molina Gaudó (editadoras)
Sbc Investigación 396.4 MUN
http://millennium.ehu.es/record=b1792887-S1*spi

From Barbie to Mortal Kombat : gender and computer games / edited by Justine Cassell and Henry Jenkins
Sbc Investigación 681.3:794 FRO
http://millennium.ehu.es/record=b1557522-S1*spi

Gender and information technology : moving beyond access to co-create global partnership / Mary Kirk
Sbc Investigación 396.5 KIR
http://millennium.ehu.es/record=b1559988-S1*spi

Gender inclusive game design : expanding the market / Sheri Graner Ray.
Sbc Investigación 681.3:794 GRA
http://millennium.ehu.es/record=b1557524-S1*spi

Gendered innovations in science and engineering / edited by Londa Schiebinger
Sbc Investigación 396 GEN
http://millennium.ehu.es/record=b1559980-S1*spi

La mujer en la ciencia : historia de una desigualdad / Begoña Crespo García, Inés Lareo Martín & Isabel Moskowich-Spiegel Fandino (eds.)
Sbc Investigación 396:5/6 MUJ
http://millennium.ehu.es/record=b1734457-S1*spi

La segunda brecha digital / Cecilia Castaño (dir.) ; Sara Añino...[et al.]
Sbc Investigación 681.324-055.2 SEG
http://millennium.ehu.es/record=b1548502-S1*spi

Las mujeres en el sistema de Ciencia y Tecnología : estudio de casos / Eulalia Pérez Sedeño editora
Sbc Investigación 396 MUJ
http://millennium.ehu.es/record=b1365634-S1*spi

Las mujeres y las tecnologías de la información : Internet y la trama de nuestra vida / Cecilia Castaño
Sbc Investigación 681.324 CAS
http://millennium.ehu.es/record=b1473678-S1*spi

Programming languages : history and fundamentals / Jean E. Sammet. 1969
Sbc Investigación 681.3.06 SAM
http://millennium.ehu.es/record=b1095805-S1*spi

Research in science and technology studies : gender and work / edited by Shirley Gorenstein
Sbc Investigación 396.5 RES
http://millennium.ehu.es/record=b1365172-S1*spi

The bride of science : romance, reason and Byron's daughter / Benjamin Woolley
Sbc Investigación 51LOVELACE BRI
http://millennium.ehu.es/record=b1823145-S1*spi

The gendered cyborg : a reader / edited by Gill Kirkup ...[et al.]
Sbc Investigación 396 GEN
http://millennium.ehu.es/record=b1340929-S1*spi

The origins of digital computers : selected papers / edited by Brian Randell.
Sbc Investigación 681.3(091) ORI
http://millennium.ehu.es/record=b1388660-S1*spi

The papers of the fifteenth SIGCSE Technical Symposium on computer science education / edited by Lillian N. Cassel and Joyce Currie Little.
Sbc Investigación 681.3:37 SIG-84
http://millennium.ehu.es/record=b1498234-S1*spi

Unlocking the clubhouse : women in computing / Jane Margolis and Allan Fisher
Sbc Investigación 681.3-055.2 MAR
http://millennium.ehu.es/record=b1543741-S1*spi

Women and information technology : research on underrepresentation / edited by J. McGrath Cohoon and William Aspray
Sbc Investigación 681.3-055.2 WOM
http://millennium.ehu.es/record=b1545351-S1*spi

Women in science, engineering and technology : three decades of UK initiatives / Alison Phipps
Sbc Investigación 396.5 PHI
http://millennium.ehu.es/record=b1559979-S1*spi

Women in scientific and engineering professions / edited by Violet B. Haas and Carolyn C. Perrucci, with the assistance of Jean E. Brenchley ...[et al.]
Sbc Investigación MR-396.5 WOM
http://millennium.ehu.es/record=b1565148-S1*spi

Women of science : righting the record / edited by G. Kass-Simon, and Patricia Farnes ; associate editor, Deborah Nas
Sbc Investigación 001.89 WOM
http://millennium.ehu.es/record=b1237229-S1*spi

:: IRAKURGAIAK / LECTURAS

Ada Lovelace: la visionaria victoriana que anticipó nuestra era digital.

http://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/09/150924_tecnologia_computacion_pionera_ada_lovelace_finde_wom

Ada Lovelace, lehen programatzalea

<http://www.argia.eus/argia-setearia/2383/ada-lovelace-lehen-programatzalea>

Hedy Lamarr, la actriz que inventó el wifi.

http://elpais.com/elpais/2015/11/09/videos/1447081801_096239.html

Las investigadoras reclaman más peso femenino en la ciencia: "Es un mundo dominado por hombres".

<http://www.20minutos.es/noticia/2962563/0/mujeres-ciencia-piden-investigar-los-real-unesco/>

Las mujeres que no verás en la película de Alan Turing

http://www.eldiario.es/turing/alan_turing-bletchley_park_0_341276141.html

Margarita Salas: «Cuando era joven me discriminaban por ser mujer, ahora me siento discriminada por ser mayor»

<http://www.20minutos.es/noticia/2962563/0/mujeres-ciencia-piden-investigar-los-real-unesco/>

María Wonenburger, una excelente matemática que ilumina nuevos tiempos

http://elpais.com/elpais/2015/06/17/ciencia/1434529864_683230.html

:: ARTICLES

Ada Byron, Lady Lovelace, An Analyst and Metaphysician / Betty Alexandra Toole

[IEEE Annals of the History of Computing, vol. 18, n. 3 \(1996\)](http://ieeannalsofhistoryofcomputing.ieee.org/18/1/Ada-Byron-Lady-Lovelace-An-Analyst-and-Metaphysician-Betty-Alexandra-Toole.pdf)

Lovelace ex Babbage and the Creation of the 1843 'Notes' / John Fuegi and Jo Francis
[IEEE Annals of the History of Computing \(2003 October-December\)](http://ieeannalsofhistoryofcomputing.ieee.org/18/1/Ada-Byron-Lady-Lovelace-An-Analyst-and-Metaphysician-Betty-Alexandra-Toole.pdf)

Pioneering Women In Computer Science / Denise Girer

[SIGCSE Bulletin, vol. 34, n. 2 \(2002 June\)](http://sigcse.org/bulletin/vol-34-no-2-2002-june/pioneering-women-in-computer-science-denise-girer.pdf)

Sketch of The Analytical Engine Invented by Charles Babbage / L. F. Menabrea

[Bibliothèque Universelle de Genève, n. 82 \(1842 October\)](http://bibliotheque.universelle.de/genève/n.82/1842/october.pdf)

The History of Digital Computers / B. Randell

[The Institute of Mathematics and its Applications](http://www.maths.tcd.ie/~bbr/digital/computers.pdf)

The Stereotypical Computer Scientist: Gendered Media Representations as a Barrier to Inclusion for Women / Sapna Cheryan ex Victoria C. Plaut ex Caitlin Handron ex Lauren Hudson
[Sex Roles, n. 69 \(2013\)](http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC3607031/)

The Women of ENIAC / W. Barkley Fritz

[IEEE Annals of the History of Computing, vol. 18, n. 3 \(1996\)](http://ieeannalsofhistoryofcomputing.ieee.org/18/1/Ada-Byron-Lady-Lovelace-An-Analyst-and-Metaphysician-Betty-Alexandra-Toole.pdf)

Women in Computing History Denise Gfirer

[SIGCSE Bulletin, vol. 34, n. 2 \(2002 June\)](http://sigcse.org/bulletin/vol-34-no-2-2002-june/women-in-computing-history-denise-gfirer.pdf)